

EUSKAL HERRIKO BASERRIAK

Euskal Herriko ondare kultural eta arkitektonikoa aztertzen badugu, ez dago dudarik gure baserriek arreta berezi bat merezi dutela. Etxegintza herri baten izaeraren eta kulturaren isla da bat baita.


Araza, ordea, gure baserri kopuruan daukagun aberastasun honetatik -mende hasieran Gipuzkoan bakarrik 12.000 baserri zeuden- aukeraketa egiterakoan sortzen da.

Bilduma txiki hau egiterakoan erabili ditudan irizpideak azalduko ditut:


- Alde batetik hautatutako aleetan gure baserrien ezaugarri-rik orokorrenak bildu nahi izan ditut.
- Beste aldetik, kasu batzuetan, berezitasunik bitxienak az-pimarratu nahi izan ditut.
- Bide batez, baserriaren helburuari begiratu, berari dago-kion tresneria erantsi diot.
- Horiek denak hartu eta muntai bereziak konposatu ditut, eraikuntza bakoitzari ingurune pertsonal bat atxekiaz.

Gure baserriaren nortasun eder, bizi eta aberatsa nabarian geldituko ahal zen!

Oharra.- Orijinalak lumatxo egindako 31 x 42 cm neurriko lanak dira.




ABATETXEA. Aramaio (Araba). Arexola auzoko Santa Mari-
na parrokia-elizari itsatsia, multzo ederra sortzen du ingura-
tzen duten gainerako sei baserrien erdian. Zurezko armazoiak
ditu eta harri-horma lodiak ditu oinarri. Harlanduzko ertz eta
eskantzuak ditu. Sarrera nagusian harlanduzko arku behe-
ratu bat du eta ezker aldeko sarreran antzinako arku zorrotzeko
atea antzematen da.




EREDUENA baserria, Aramaio (Araba). Aramaioko Arriola auzoko Ereduena edo Erdikoa baserriak oin ikusgarria du, bertan etxebizitza, ukiulua eta sotoa biltzen dira eta bakoitzak bere atea du. Baserri baten xede nagusien sintesia da: etxebizitza, lana, aurrezkia eta aurreikuspena. Harlanduzko ertzak, bi leiho bitxi, teilategal handiak eta haritzeko estalki-armazoiak osatzen dute baserri simple eta interesgarri hau.




ZUAZUA baserria, Aramaio (Araba). XVI. mendean eraikitako baserri interesgarri honetan lerdentasuna da nabarmen. Fataxada nagusiaren simetriak, zentroan duen armarriak, zurezko balkoiek, erdi-puntuko bi arkuek eta harlanduzko ertz eta eskantzu hutsek indartu egiten dute baserri honen lerroen harmonia eta frogatu egiten dute baserria produkziogune gisa ez ezik, etxebizitza dotore eta eroso gisa ere planteatu daitekeela.




ITURRIAGA-ETXEBARRIA baserria. Gaztelua, Abadiño (Bizkaia). XVIII. mendeko baserri honen eraikuntza osoan eta arkuaren osieran nabarmenak dira oso hiri-eraginak. Portaleko arku beheratu zabalak erdialdeko zati osoa eusten du. Aipatzekoak dira hormetan horizontalki zein bertikalki gaineratutako harrizko uztaiak, baserri askotan fatxada osoa estaltzen zuten mahats-parrak eusteko erabiltzen ziren uztai hauek.



SANTIENA baserria, Berriz (Bizkaia). Etxea nortasunaren adierazpide bada, etxe honen harri, zur eta adreiluzko egitura zuhur eta harmoniatsuak nortasun oparoa adierazten du, bereziki familiaren, lanaren, bizikidetasunaren, askatasunaren eta intimitatearen kontzeptu sendoan oinarriturik. Baserria da, adierazpenaren mikrokosmos txikia, gizarte baten kultura eta bizimodua ulertzeko dokumenturik esanguratsuena.




UGARTE baserría, Berriz (Bizkaia). Baserrí honen oina eta estalkia zabalak dira oso eta fatxadaren sinpletasun distiratsua biltzen dute. Fatxadan ikus daitezkeen arku beheeratuko portale zabalak, Bizkaiko baserrietan tipikoa, balkoi jarraiak eta karez margotutako entokadurek ez dituzte estaltzen harrizko eskantzuak edo harlanduzko ateburuak eta motxetak. Horrenbestez, harri-hormako baserrí bat dugu.




ARANBURU ZAHAR baserria, Aia (Gipuzkoa). XVII. mendea izan zen armazoia duten baserrien garairik oparoena eta sasoi honetan, hain zuzen ere, berregin ziren baserri sendoenetako batzuk, Aranburu Zahar baserria esate baterako. Izan ere, eraikin-mota hau baserri-mota ugarienetako bat da. Baserri hauetan ikus daitekeen zurezko laxken muntaiak eutsi egiten du baserria. Familia eraikinaren eskuinaldean bizi zen eta ukuiluak eta lastotegiak hartzen zuten baserriaren barruko espazioaren zatirik handiena.




ETXEBERRI baserria, Altzo-muino (Gipuzkoa). Baserri honen eta bere estiloko beste hainbatek Gipuzkoako herri-etxeen bilakaera historikoaren unerik garaiena seinatzen dute, bai eraikuntzaren kalitateagatik, bai arkitekturaren diseinuagatik, eta nabarmendu egiten dira Europako landa-arkitekturaren esparruan. XVII. mendeko baserri honen egitura harri eta haritzekoa da, mendetako jakituriaz landuak, eta harlanduzko bi arku beheratuk definitzen duten ataripea du.



IGARTUBEITI baserria, Ezkio-ltxaso (Gipuzkoa). Baserri erromantiko honek oso arkaikoa dirudien arren, euskal etxebizitzaren aldaera besterik ez da, baliabide urri erabiliz egindakoa, alegia. Igartuburu baserriari ataripe jarraia eta gela handi bat gaineratu zitzaion, XVII. mendean, oholak erabiliz. Oso erabilgarriak gertatzen ziren lastategiak aireztatuta izateko; alabaina, oso ahulak ziren. Oina harriz eraikita badago ere, egitura haritzeko zutabe lodiz eraikita dago.



ARRETXEA jauregia, Oronoz (Nafarroa). Kaleko etxe handi honek jauregi-itxura baino landa-etxearen itxura du eta euskal arkitektura aztertzen dutenen arreta erakarri du. 1743. urtean gaur egun dituen ezaugarriak zituen eta armategiko kabuaren jauregia izan zen. Bi arku beheratu eta teilategal handiak ditu, eskailera handi bat du kanpoaldean eta armarri bat fatxadaren erdialdean.



YANDENEA etxea, Goizueta (Nafarroa). Goizuetan armazoi lerdena duten etxeak eta armazoi zabalekoak ikus ditzakegu, bata bestearen aldamenean. Yandenea dugu etxe-mota honen adibide azpimarragarri eta aipagarria. Etxe honek tarteko fatxada-garapena du eta bereizgarri ditu ataripea edo gorapea, hegalkinak eusten dituzten zapata irtenak edo leihoen forma, 1638. urteko sutearen aurrekoak.



ZELAYA etxea, Bera (Nafarroa). Hauxe dugu Beran dagoen etxe exentu urrienetako bat. XVI. mendean edo XVII. mendean hasieran eraiki zen eta ahalegin tekniko eta artistiko handia azaltzen du. Sorkuntza zaharreko etxeetan, seguraski Euskal Herriko zaharretako bat izango da, ikus daitekeen landu gabeko hargintzaren eredu ederra da. Dena den, dobela eta arkuaren aparejuak azken tratatu errenazentisten ondoren gartzatzen den hargintza landuaren eragina isladatzen du.

Juan Mari Arrizabalaga